

# BERRIGARA

131. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1993, abenduak 17

**UDAL  
ORDEZKARIAK  
MINTZO:  
JOSE LUIS  
ELKORO (HB)**

**GABONETAKO  
KONTZERTUA  
ZAPATUAN**

**KIROLAK**

**GIMNASIA  
ERRITMIKO  
TALDEA  
ESPAINIAKO  
TXAPELKETAN**



**Gazte  
gaztetatik  
eskolara**



OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.

**NIRE AUTOA BAZINA AUTO  
HAU IZANGO  
ZINATEKE.**

**OPEL CORSA  
NIRE AUTOA**

**OPEL**

**TALLERES  
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
**BERGARA** (Gipuzkoa)  
Erakusketa **ARRASATEn**:  
Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86  
**DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA**  
ETA **GOIERRI GARAI** Irako  
kontzesionaria


## Gipuzkoa: bihotz-bihotzean



Gipuzkoarekin buruz eta bihotzez bat eginik ari gara lanean. Horregatik, finantz zerbitzurik aurreratuenak eskaintzeaz gain, bertako nortasunaren alde ere gogotik ari gara **kutxa**n. Kirolaren, kulturaren, artearen, musikaren, ohiturarik errotuenen alde. Gure jende guztiaren alde. Gipuzkoa bihotz-bihotzean daramagulako.

**Gipuzkoa: Bihotz-bihotzean.**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



**kutxa fundazioa**



**kutxa**

gipuzkoa  
donostia kutxa

caja gipuzkoa  
san sebastián

**Argitaratzailea:**  
 Jardun Elkarte  
 Errotalde Jauregia, 20.570  
 Bergara. ☎ 76 08 19

**Berrigara**  
 Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97  
**Babeslea:** Bergarako Udala.

**Zuzendaria:**  
 Gorka Elorza.

**Erredakzioa**  
 Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
 eta Mikel Elkorobezibar.

**Maketazioa:**  
 Eneko Azkarate eta Eduardo  
 Mendibil.

**Publizitatea eta harpidetzak:**  
 Alex Azkarate eta Eduarne  
 Arenaza. ☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:**  
 Iñaki Eraña eta Alex Labaien.

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel  
 Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel  
 Angel Elkorobezibar, Juan  
 Martin Elexpuru, Josu Oregi,  
 Maripi Laskurain, Nerea Alzelai,  
 Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa,  
 Mikel Lizarralde, Monika  
 Belastegi, Aitziber Aretxaga,  
 Ainhoa Bikuña, Asier  
 Madinabertia, Josune Iñarra eta  
 Ane Miren Goenaga.

**Argazki laborategia:**  
 Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifú.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu  
 Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**  
 Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea.  
**Copyright:**  
 BERRIGARA

**Tirada:** 3.500 ale.  
**Lege gordailua:** SS 50/ 91  
**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain har-  
 tzen aldizkarian adierazitako esa-  
 nen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK



**Zerbitzu Publiko-  
 etako** langileek huelga  
 gin zuten ostegunean, hil-  
 lak 16. Udaletxeko, Udal  
 Euskaltegiko eta L.H. Es-  
 kolako langileek "Nego-  
 ziaketa kolektiboaren alde  
 eta inposaketen kontra"  
 protestatzeko huelga egitea  
 erabaki zuten asteazkenean  
 egindako asanbladan. 46 boto gre-

baren alde, 26 kontra eta  
 5 boto zuri zenbatu ziren.  
 Sindikatu etako ordezkari-  
 kien adierazi dutenez,  
*"zerbitzu publiko etako  
 langileok ez gaude sol-  
 daten konjelazioaren  
 kontra. Hori onartu de-  
 zakegu, baina erabakia  
 dekretu bidez inposatze-  
 aren kontra eta negozi-  
 zioaren alde gaude."*

## Udaletxeko langileek huelga egin zuten ostegunean

## ITURRI ONETIK

### Legebiltzarra Bergaran

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Legebiltzarrak bultzatuta, Gasteizko Parlamentuari buruzko jaialdi eta informazio saioa egingo da urtarrilaren 11n Bergaran. Autonomi Elkarte herrietatik zehar egiten ari da eta Deba Garaian Bergaran egitea erabaki du Hezkuntza sailak. Horrela, bada, Bergarako ikastetxe etako O.H.O. ko 7. eta 8. mailako ikasleei zuzendutako eztabaida saioa egingo da, okasiorako montatutako "parlamentuan".


## ESAN DUTE

"Urretxindorrek hirurogeiko hamarkadako euskal pop-aren izarretako bat izan zen, dudarik gabe. Oso modu garbian kantatzen zuen taldea zen, eta laguntza musikal oso minimalista erabiltzen zuena. Iparraldean badago oraindik antzerako kantakerarik. Harrigarria badirudiere, badu antzik The Proclaimers eskoziarrekin (Britania Haundian eta Estatu Batuetan oso ezaguna den taldea)".

**IÑAKI ZARATA**  
 Kazetaria  
 DV ZABALIK

"Ez nago neuk espero nuen mailan oraindik. Beljikatik etorri nintzenean sasoitsu nengoen baina katarroa hartu eta ez naiz guztiz errekuiperatu".

**IÑIGO IGARTUA**  
 Txirrindularia  
 EL DIARIO VASCO



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du

# ederTu

20 urte zure zerbitzura,  
 kalitatezko altzariak eskaintzen

Barrenkale, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

# LAZKANO

## Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
 BERGARA



**KIKA**

Ostirala: 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astlehena: 19.30.



**LA MATE PORQUE ERA MIA (TANGO)**

Larunbata: 17.00, 19.30,  
22.30.



**LA FEMME DE ROSE HILL**

Osteguna: 19.30.

**Zinea**

▼▼ Almodovaren azken filmea. Bere ohizko aktoreez inguraturik (**Victoria Abril, Rossy De Palma**), oraingo honetan Veronica **Forqué** edota **Peter Coyote** (*Lunas de biel*) gehitu zaizkie. Istorio nahasi bat, egoera barregarri batzuk..., asko gehiago ez.

▼▼ **Patrice Leconte** (*El marido de la peluquera*) zuzendu eta **Philippe Noiretek** (*Cinema Paradiso*) protagonizatutako filmea. Gizon eta emakumeen arteko erlazioaz ikuspegi kritiko eta barregarria ematen da.

▼▼ Azken astetan **Alain Tanner** zinegileari dedikatutako zikloari amaiera ematen dion filmea. Berriz ere amodioaren gaia landuz, **Marie Gaydu** eta **Jean Philippe Ecoffey** dira aktore nagusiak.

**Deiak**

▼ **Dani Santos** argazkilariaren erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Musika.** Mol-Stones Pizinetako tabernan ostiralean 23.00etan.

▼ **Xake** txapelketa Oilagorra tabernan abenduaren 20tik 23ra.

▼ **Eskola kirola.** Monitore ikastaroa. Informazioa Kirol Zerbitzuan.

▼ **Matinala.** "El último gran héroe" igandean 11.30etan.

▼ **Futbolin** txapelketa astartean 20.30etan Pol-Polen.

▼ **Sukaldaritza** ikastaroa Gabonetan. Izen-ematea JARDUNen.

**Ogia**

▼ **Igandea 19:** Konde.



**GOARDIAKO FARMAZIAK**

- ▼ **Larunbata 18:** Estella/Amezua.
- ▼ **Igandea 19:** Estella/Ruiz.
- ▼ **Astlehena 20:** Mozos/Morales.
- ▼ **Asteartea 21:** Camacho/Azkoaga.
- ▼ **Asteazkena 22:** Puy/Español.
- ▼ **Osteguna 23:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Ostirala 24:** Estella/Amezua.

**TXURRUKA AUTOAK**

Taxi eta mikrobus zerbitzua.  
Ibilgailu berri eta erabilien salmenta.  
Era guztietako konponketak.  
Garbiketak, etab...

Aitz Iturri - San Lorentzo auzoa BERGARA.  
☎ 76 12 36 - 76 09 30

Agentzia




PEUGEOT-TALBOT

Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01




▼▼ **Kirol argazki** lehiaketako lanik onenak ikusi ahal izango dira Kultur Etxean asteazkenera arte. Zuribeltzean, Koldo Galvezek lortu du lehen saria, Juan Armentiak bigarrena eta Benito Canterok hirugarrena. Herriko onena Dani Santos izan da. Kolorezko kategorian, berriz, Cristobal Burgos izan da irabazlea, Dani Santos bigarren sailkatu da, Hilario Azkargortak hirugarren saria lortu du eta, azkenik, Bergarako onena Juan Tabares izan da. Kultur Etxeko erakusketa aretoa astebukaeran 12etatik ordubietara eta 6etatik 8etara eta, aste barruan, berriz, 6etatik 8etara egongo da zabalik.

**5****PROFESIONALAK**

- Goñi eta Oregi / Badiola I.a eta Azkarate.
- Telletxea eta Galarza / Koka eta Zezeaga.

Larunbatean,  
16.30etan Udal  
Pelotalekuan.



Oregi bergararra lehen partiduan ikusteko aukera.

# KIROL

## KARTELDEGIA

**FUTBOLA****BERGARA-DANAK**

Preferente maila.

Igandea. 15.30. Agorrosin.

**BERGARA-ANAITASUNA**

Lehen mailako kadetea

Igandea. 11.30. Ipintza.

**BERGARA-LAZKAO**

2. mailako kadetea

Igandea. 10.00. Ipintza.

**ESKUBALOIA****BERGARA-BIZKOR**

Kadete mutilak

Larunbata. 16.00. Kiroldegia.

**BERGARA-BIDEBIETA**

Jubenil mutilak

Larunbata. 17.15. Labegarieta.

**BERGARA-URNIETA**

Jubenil neskek

Larunbata. 18.45. Labegarieta

**SASKIBALOIA****ARANZADI IKASTOLA-SAN VIATOR**

Infantil mutilak

Larunbata. 11.00. Kiroldegia.

**FUTBITOA**

Astebukaeran Labegarietako  
kiroldegian.

## Beheko Taberna

Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.**  
**Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## Gobernu Batzordea edo Epaitegia

Egin egunkariko erosle eta irakurle bat naiz, eta lehenengo aldia da ausartzen naizena Berrigararen idazten baina ezin naiz isilik gelditu entzundakoa entzun ondoren. Gehienok jakingo duzue Egin egunkaria jasotzen ari den zigor ekonomikoa alde batetik, eta kriminizazio kanpaina bestetik, guzti hau isiltzeko helburuarekin.

Horrela esanda ematen du gobernu espainolak edo Gasteizkoak egiten duela kanpaina hori. Ba hara nondik nora izenak ere azaltzen hasi diren eta lehenengo artean Bitoriano Gallastegi Udaletxeko Gobernu buru bezala azaldu zaigun. Ez nuen espero inondik inora eta ahoa zabalik gelditu naiz entzun dudanean Bergarako Udaletxeko Gobernu Batzordeak erabaki bat hartu duela esanez Udaletxeak ez duela inongo informaziorik emango egiten duen lanari buruz, ez dutela propagandarik ezarriko ez eta erosiko Egin egunkaririk, orain arte beste batzuen artean erosten zutena. Beraz Egin irakurtzen dugunok ez dugu eskubiderik Udaletxean zer gertatzen den jakitzeko, baina bai inpuestoak pagatzeko obligazioa, gero zuek nahi duzuen egiteko. Mendeku itxura hartzen diot.

Nere ustez arrazoi sendoak azaldu beharrean aurkitzen zarete zuen "dekretazo" hau esplikatzeko. Beste inork ez du oraindik demostratu ze delitu egin

duen egunkari honek, zuek egin duzue zuen epaiketa partikularra eta sententzia "errudun" izan da. Nik ez dakidana zein den delitua.

Herriko korresponsalarekin gaizki konpontzen zarete? Ez ditu behar den bezala idazten Udaletxeko gaiak? Insulto personalak egon dira erdian? Egin dela Joseba Goikotxearen hilketaren erruduna pentsatzen duzue?

Nere ustez E.T.A. da erantzunkizuna duen bakarra eta ez beste inor. Eskertuko nizueke zuen erabakiaren arrazoiak publikoki ateratzea, hauek izan edo beste batzuk.

*Jose R. Kortabarria*

## Anbulategian gertatutakoari buruz

Astekari honen irakurle goari eta Bergarako ambulategiari:

Gure aita ez zen keitzekoa, joan den astean, asteazkenean hil zen gure herriko ambulategian, hiru bider joan zen medikura petxuko minez eta azkenengo honetan bera falta zenez inongo atentziorik gabe hil zen.

Guk suposatzen genuen larrialdietako zerbitzu batean derrigorrezkoa zela mediku bat egotea, gaixorik doazenak ahal bada sendatzeko eta ezin bada, behintzat hiltzen laguntzeko. Horregatik eskatu nahi diogu Bergarako ambulategiari azal diezagula zerbitzu hau erabiltzen dugunoi ea

zein den bere funtzionamendua eta zer egin dezakegun horrelako larrialdietan sendagilerik ez badago.

*Bernardo Alberdiren seme-alabak*

## BERRIGARAKO GUTUNAK

**Gutunak sailera bidalitako kartak identifikatuta bidali beharko dira BERRIGARAKO Erredakziora eta izen eta abizenarekin sinatuta argitaratuko dira.**

**Talde bat baldin bada idazlea, taldearen izena eta partaide baten izen eta abizenak bidali beharko dira.**

**Bestalde, karten luzera 30 lerro baino gutxiagokoa izatea eta, ahal izanez gero behintzat, makinaz idatzita bidaltzea eskatzen da.**

*BERRIGARAKO Erredakzio Kontseilua*

## Tiira ba!



## Josu Okina

# Gabonetako kontzertua larunbatean

## Banda, Orkesta, Orfeoia eta Aritzetaren partaidetzarekin

Larunbatean, gaueko 10.30etatik aurrera, Udal Musika Bandak, Orkesta Sinfonikoak, Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatzak Gabonetako kontzertua eskeiniko dute San Pedro Parrokian, "urteroko azterketa herritarren aurrean eta urteko kontzerturik popularrena" Alfredo Gonzalez Chirlaque Banda eta Orkestako zuzendariaren hitzetan.



laz bezala, aurtan ere San Pedroko Parrokian egingo da Gabonetako kontzertua.

Dudarik ez, urteko musika ospakizunik arrakastatsuen izaten da Gabonetako kontzertua; "guretzat azterketa moduko bat izaten da, talde bakoitzak pasatu behar izaten duen urteroko proba. Horrez gain, herrian zer egiten ari den gertutik ezagutzeko aukera izaten du jendeak. Eta, talde guztiok batera jotzen dugun pieza erakargarria izaten da" aipatzen du Gonzalez Chirlaquek.

Aurtengoan, J. Guridiren "Eusko irudiak" eskeiniko dute lau taldeek, aurreko urteetan "La misión" (Morricone) eta Handelen "Mesias"ekin lorutako arrakasten ondoren.

Joan den urtetik San Pedron egiten da Gabonetako kontzertua; "Frontoia popularragoa zen, San Pedro, berriz, serioagoa baina sonoridade aldetik hobea", Glez. Chirlaqueren eritziz.

Kontzertuetarako sarrerak Kultur Etxean eta, larunbatean bertan, Plazan (12etatik ordubietara) edota San Pedron, kontzertua hasi aurretik, eskuratu ahal izango dira 500 pta.tan. Horrez gain, Plazan, urtarrilaren 6 eta 7an Frontoian antzeztuko den "Miserableak" lanerako sarrerak ere salduko dira 1.000 pta.tan.

### EGITARAUA

#### UDAL MUSIKA BANDA

- "Scheherazade".....Suite sinfonikoa..... R. Korsakov  
Zuzendaria: Alfredo Glez. Chirlaque

#### ARITZETA ABESBATZA

- "Te quiero"..... A. Favero
- "Can't help falling in love"..... Arr.:Ejvind Dengso
- "Alegeratzen"..... L. Elizalde
- "Atxia motxia"..... T. Garbizu
- "Belengo estalpe txiki batean"..... M. Glez. Bastida  
Zuzendaria: Izaskun Labaien

#### ORKESTA SINFONIKOA

- "The montagues and capulets"..... S. Prokofieff
- "9. sinfonia"..... A. Dvorak  
Zuzendaria: Alfredo Glez. Chirlaque

#### BERGARAKO ORFEOIA

- "Resonet in laudibus"..... Aita Donostia
- "Joseph Fili David"..... J. Busto
- "Cantique de Jean Racine"..... G. Faure
- "Gloria G Mayor-ean"..... F. Schubert
- "Christmas Lullaby"..... J. Rutter  
Zuzendaria: David Azurza

## GURIDI Altzariak

**Era guztietako  
altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

## MEKOLALDE TABERNAK

*Jai zoriontsuak opa nahi dizkizue*

**Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean  
itxi egingo dugu. Barkatu eragozpenak.**


Mekolalde z/g ☎ 76 50 18

## Bideo emanaldiak Kultur Etxean

Bideo munduan dabilen jendeak sortu berri duen Islada bideo gelak bideo emanaldiak iragarri ditu abenduaren 21, 22 eta 23rako. Asteartean, hilak 21, hainbat autore katalandarren lanak ikusgai izango dira 19.30.etatik aurrera Kultur Etxean, asteazkenean ordu eta toki berean autore euskaldunen txanda izango da eta, azkenik, ostegunean, "Bergarakoak" izenburupean Aitor Mendibil, Gurutzne Elkoro, Patxi Garmendia, Andoni Goiti, Ohiana Gardoki, Antonio Astiazaran, Iñaki Gurrea, Asier Altuna eta Joxan Izaren lanak ikusi ahal izango ditugu.

## Eguberriak Konbibentzia

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zestoako Bainuetxean Eguberrietako Konbibentziaren programa antolatu du, abenduaren 23tik 25era bitartean. Programaren helburua, 65 urtetik gorako inork ez ditzala Eguberriak bakardadean igaro. Irteera abenduaren 23an egingo da eta buelta 25ean. Prezioa: 3.000 pta.



Bergarak baliabide asko ditu monumentu aldetik. Argazkian, Agarreko garaiea.

## Turismoa erakarri nahirik

*Mankomunitateak bailararen zabalkunde turistikoa egin nahi*

Deba Garaiko Mankomunitatea bailarako herrien baliabide turistikoak aztertzen ari da, 1994an bailarako zabalkunde turistikoa egiteko asmoarekin. Azterketa hori maitzerako bukatuta egon daiteke eta hortik aurrera zabalkundeaz arduratuko den bulego bat jartzeko aukera aztertuko da. Horrekin lotuta, Deba bailarako katalogo turistikoa aurkeztuko da urte hasieran Bilbon izango den Fitur ferian. Bertan gure bailarako artea, gastronomia, turismoa eta beste hain-

bat xehetasun ezagutaraziko dira.

Andoni Larrañaga zinegotziaren hitzetan, "Bergarak baliabide asko ditu, monumentu aldetik, arte aldetik, ... Turismoa jasotzeko azpi-egitura-plan bat egin behar da. Horretaz aparte, Oñatin bezala, bisita gidatuak antolatu nahi dira. Elizetakoekin ados gaude eta meza egiten ez denean elizak ikusteko aukera izango da". Azkenik, Bergarari buruzko triptiko bat argitaratuko du Udalak, kanpoan banatu eta turismoa erakartzeko.



## KORTA-ZAR

**Txokolategia**

*Pintxo eta ogibartekoen  
espezialitatea*

**HEMENDIK AURRERA OSTIRALETAN  
GOIZEKO 9ETATIK ZABALIK**

Barrenkale 16, ☎ 76 20 62

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

## ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak.  
Fatxadak, eskaparetek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

## IZADI PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua

Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83





Udal langileek, erabakia atzera botatzeko eskakizuna egitea erabaki dute.

## EGINi informaziorik ez

### Gobernu Batzordeak udal informaziorik ez ematea erabaki du

Joan den ostegunean Udaleko Gobernu Batzordeak Egin egunkaria ez erostea, bertan udal publizitaterik ez egitea eta informaziorik ere ez ematea erabaki zuen, Joseba Goikoetxea Ertzaina eta EAJko alderdikidearen hilketaren ondorioz Victoriano Gallastegi alkateak egindako proposamenari jarraituz.

Honekin lotuta, asteazkenean Udal langileek osteguneko greba aztertzeke egindako asanbladan, Gobernu Batzordeari Eginen aurkako erabaki hori atzera botatzeko

eskakizuna egitea erabaki zen. Bertan esanenez, "guztiek baita ukate udal informazioa bakoitzak erosten duen egunkarian jasotzeko eskubidea".

Egin egunkariaren aldeko Batzorde bat ere sortu da Bergaran eta hainbat zozketa antolatu dituzte dirua biltzeko asmoz. Bestalde, larunbatean, 6etan, Eginen aldeko manifestazio bat egingo da Bilbon eta Bergaratik autobusa 4retan aterako da Frontoitik. Txartelak ohizko lekuetan eskura daitezke.

### Moto irteera

Zapelaitz Motorzale Elkarteak urteko azken irteera iragarri du iganderako, abenduak 19. Egun osoko irteera Zapelaitzetik egingo da 9.30etan honako ibilbidearekin: Bergara-Iruñea-Lunbier-Isaba-Bergara.

### Ipuin kontaketa

Udal Liburutegiak antolatuta, asteartean, hilak 21, Intzentsu Gorria taldearen eskutik, "Xagu hegalaria" ipuin kontaketa izango da Novedadesen 16.30etan.

### Amnistiaren Aldeko Batzordea kantuan

Amnistiaren Aldeko Batzordeak dei egiten die herritarrei abenduaren 24an goizeko 9etan Zabala jatetxean bildu eta abestera irtetzeko. Ondoren bazkaria izango da Artatse elkartearen. Txartelak Pol-Pol edota Arranon jaso daitezke.

### Iñaki Lete gogoan

Asteazkenean Iñaki Lete Antzuolako alkate ohiaren heriotzaren lehen urteurrena bete zen, eta astean zehar hainbat ekitaldi izan dira bere oroimenez. Igandean bere aldeko meza izango da Antzuolan.

## Iturkintz Berri

Amillaga 1  
(B pabiloia)  
BERGARA

### INSTALAZIOAK:


Iturkintza  
Berogintza  
Gasa

☎ 76 28 04

## LXUKUN

### BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62  
BERGARA



## BOUZAS-VILLAR

Margoak eta paperezatuak. Moketa tinkatua jartzen espezialistak.

Zurradero 8, 1.A ☎ 760612 BERGARA Iparragirre 17, 5. ☎ 723091 URRETXU

*"Herriaren % 30-40a ordezkutzen du HBk eta hori Udalaren erabakietan ez da isladatzen"*


**PSE-EEko eta EAko Udal ordezkariak izan dute hitza aurreko asteetan eta oraingoan, HBko Jose Luis Elkorok erantzun die herriko berriemateak egindako galderei. Datorren astean EAJko Victoriano Gallastegi ekarriko dugu txoko honetara.**

- Nola baloratzen duzue oposizioan orain arte egindako lana?

- Gu ez gaude Gobernu Batzordearen barruan, ez dugu Udala gobernatzen. Komisio bat izan ezik (Gazteria eta jaiak) beste guztietan parte hartzen dugu. Gure partehartzea iritziak ematera mugatzen da eta hortik aurrera ez daukagu jokurik.

Gure ustez oposizioak pisu haundiagoa izan beharko luke Udalak hartzen dituen erabakietan. HBk herriaren % 35-40a ordezkutzen du eta hori Udalean ez da isladatzen. Gure aportazioak kontutan ez hartzean, ordezkartzen dugun indar politikoaren esperientzia eta jakinduria desaprobatzen da eta hori, azken finean, herriarentzat kaltegarria da. Aurreko legealdian agintean egon ginenean ez genuen horrela jokatu. Alderdi guztiei eman genien Gobernu Batzordean parte hartzeko aukera, baina

## Jose Luis ELKORO HB



"Zubietako etxeak botatzearen kontrakoak gara"

batzuk, oposizioa beste modu batera egitea pentsatu zutelako, ez zuten Gobernuan parte hartu nahi izan.

**- Hala ere, partehartze zuzena izan duzue Arau Subsidiarioen erredakzioan.**

- Arau Subsidiarioen inguruan orain dela hiruzpalau legealdi ezkerroztik eztabaidatan ari gara. Agintean egon gine-

nean, Bolinagaren legealdian egin zen lana hartu eta bide beretik jarraitu genuen. Orain azken fasean gaude, laister onartuko dira eta. Beraz, Arau Subsidiarioak ez dira legealdi honetan egin den lanaren ondorioa bakarrik. Horrelako arauak ez dira epe laburrean onartzen eta horretan Bergarako Udalak ondo jokatu duela uste dut. Arauak

dokumentu aberasgarri eta garrantzitsuak dira, baina inportantea ondo egitea da, etorkizunerako dokumentua da eta ondo pentsatu eta eztabaidatuz egitea komeni da. Udalak herritarren iritzia kontutan hartu du eta HBk ere prozesu horretan, bai lehen eta baita orain ere, parte hartu du.

**- Fraiskozuriko Galartzako etxeekin eta Zubietakoekin sortu den arazoa nola ikusten duzue?**

- Problema egoteak ez du esan nahi Udala herritarrengana zabaldu ez denik. HB agintean egon zenean, Galartzako etxeetako ordezkariekin batera Diputazioarekin eta Ur Konfederazioarekin hartuemanetan izan ginen, herritarren arazoari irtenbide bat aurkitu nahian. Euren kezka eta iritziak kontutan hartu genituen.

Zubietako arazoa ezberdina da baina problema hori sortu denean ere, harremanak izan ditugu Zubietako etxeetako jabeekin.

**- Ze irtenbide ikusten diezue arazo horiei?**

- Galartzako etxeen inguruan, HBk beti eduki du kriterio berdina. Etxe horiek gaizki eginda daude eta ezin dira utzi dauden moduan. Arau Subsidiarioetan jasoko balira, problema hori betirako zintzilik geratuko litzateke, irtenbiderik aurkitu barik. Baina arazoa konpondu behar da eta etxe

# HERRIKO ORDEZKARIAK MINTZO

horiek desagertu behar dira. Orain, desagertzekotan nola? Ba guk esaten duguna da kaltetuta ez dela inor geratu behar, hau da, etxeetako jabeek konpentsazio egokiak eman behar zaizkiela.

## - Nolako konpentsazioak?


- Ordainketa edota truke moduak badaude. Etxeen balorazio bat egin ondoren, diruarekin ordaindu daiteke edota truke bitartez, beste etxe batzuk emanaz. Baina, behar dena da bere neurrian konpentsatzea eta ez espropiazioaren bidea erabiltzea.

## - Eta Zubietako 5. zenbakitik 31.era doazen etxeei ze irtenbide ikusten dio HBk?

- Hasiara batean etxe horiek ordenazioz kanpo utzi eta botatzearen aldekoak ginen, baina etxeetako jabeekin bildu ondoren, beste erreflesio batzuk egin ditugu. Oso kontutan izan ditugun bi iritzi daude hor: alde batetik, jabeek ez dituzte etxeak utzi nahi, bizi diren lekuan jarraitu nahi dute. Bestetik, etxe horiek monumentu artistikoak dira eta hori jende guztiak esaten du. Arrazoi horiek kontutan izan ditugu eta gure iritzia etxe horiek dauden moduan lagatzearen aldekoa da.

Gainera, Galartzako etxeekin gertatzen dena ez da hemen pasatzen, zeren eta han Deba Ibaiak ez du behar duen zabaleira eta Zubietan, berriz, bai. Bestalde, trafikoko arazoak sor daitezkeela? Ba, beste konponbide bat topatu beharko da baina ez etxeak botatzea.

Beraz, gure erreflesioak egin ostean, hasierako iritzia aldatzea erabaki



"Arrizuriaga parke publikoa da eta herriak ez du erabiltzen Ertzaintza bertan dagoelako"

dugu eta Zubietako etxeak botatzearen kontra azaldu gara.

## - Arau Subsidiarioen hasierako onarpenari baiezkotua eman zenioten.

- Baina baiezkotua baldintzatua. Galartzako eta Zubietako etxeen kontuari irteera kontsentsuatu bat eman behar zaiola es-

parkea Ibargarai pasealekuraino luzatzea eskatzen dugu eta Beheko Estazioko etxea botatzearen kontra gaude. Arrizuriagako parkearen proiektuaren behelaldean etxebizitza bloke bat aurreikusten da eta gu ez gaude horren alde. Bestalde, Beheko Estazioko etxea herriko eraikuntza historiko

## nari buruz zer diozue?

- Absurdo bat da. Arrizuriaga parke publiko bat da eta herriak ez du erabiltzen komisaldegia bertan dagoelako. Ertzaintzaren komisaldegia beste kokagune bat behar du, orain parkea okupatzen du eta.

## Azoka Plaza berria

- Merkatuaren auzian zein da HBren ikuspuntua?

- Herriari ez zaio eskaini beharrezkoa duen zerbitzu bat, inbertsio handia egin da eta horri ez zaio etekinik atera oraindik. Urtebete inguru galdu da dagoeneko... Merkatua orain dela lau urte martxan egon behar zen.

- Baina badago eskakizunik?

- Udalak ez die ganorazko eskaintzarik egin saltzaileei. Aurreko legegaldian, ni alkate nintzela, ikerketa bat egin genuen

## "Galartzako etxeak gaizki eginda daude eta desagertu egin behar dira, jabeak konpentsatuz"

katzen dugu. Gai honen inguruan gure ikuspuntua aipatu dut, baina bada beste gai bat, hain zuzen ere, San Josepe inguruan etxeak egiteko proiektuarekin ez gaude ados. Eta Arrizuriagako parkearen proiektuan ere aldaketa batzuk proposatu ditugu:

bat dela uste dugu eta ez dugu begi onez ikusten etxe hori botatzea. Inguruan etxeak egiteko proiektua dago eta ez zaigu gaizki iruditzen baina geltokiko etxea bertan utzi eta ingurua txukunduz.

- Ertzaintzaren komisaldegia kokape-

eta eskakizuna bazegoen, benetako interesa azaldu zuten, bai orain merkatu zaharrean daudenak eta baita merkatu berrian posturen bat jartzeko prest zeudenak. Gauzak aldatu egin dira eta gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoa 1987koa baino okerragoa da eta Udalak esfortzu bat egin beharko luke saltzaileei gauzak errazteko. Hortarako Merkatu berriak baldintza batzuk bete beharko lituzke orain betetzen ez dituenak. Guk egin genuen proiektuan, esate baterako, aparkaleku bat aurreikusten zen Merkatuaren kanpokaldean.


**- Eta zer gertatu da Merkatuarekin batera eraiki behar ziren garaje pribatuak?**

- Gure proiektuan bi solairu eta soto bat aurreikusten zen. Sotoan garajeak egingo ziren, merkatua txiki geratuko balitz salmenta postuak jartzeko erabiliko zena. Horrez gain, merkatua eraiki eta gero, Santa Marina aurreko plazan aparkaleku pribatuak egiteko asmoa zegoen eta garaje postu horiekin ateratzen ziren irabaziekin aparkaleku publiko bat egitea aurreikusten zen. Horrez gain, merkatua bultzatu eta antolatuko lukeen ardura-dun bat kontratatzeke asmoa zegoen. Azoka plaza merkatal gune bihurtzeko asmoa geneukan. EAJk jarri zizkigun oztopoak ipini ez balizkigu, orain dela lau urte martxan egongo zen merkatua. Bi urte galdu genituen tramite burokratikoetan.

**- Gaiz aldatuz, Gaztetxea ixtearen kontuan zer du esateko HBk?**

- Agintean egon gine-

nean gure postura Gaztetxea zegoen tokian jarraitzearena zen. Ondoa dagoen kontribuzioko lokalak izandakora pasatzeko saiakera egin genuen baina ez zegoen tokirik eta proiektua baztertu eta beste toki batean koka-



"Oloso Dorrearen kontuan politikoena izan da ardura nagusia"

tzeko aukera aztertu genuen. Poligono Industrialean lokalen batzuk erosi eta han jartzeko aukera bazegoen, baina ez zitzaigun ondo iruditu gazteriaren topagunea herriaren erditik hain urrun kokatzea eta hori ere baztertu egin genuen. Gaia ondo aztertu ondoren, irtenbiderik egokiena Gaztetxea zegoen tokian uztea zela

pentsatu genuen. Gaztetxeko asanbladako ordezkariekin bileratan izan ginen eta lokalak insonorizatzeke konpromezua hartu zuten, baina Elizbarrutiak (lokalaren jabeak) ez zuen baimenik eman. Gaztetxeko asanbladari barne funtzionamendurako baldintzak eta konpromezu minimo batzuk eskatu genizkion,

.....

## "EAJk jarri zizkigun oztopoak ipini ez balizkigu orain dela 4 urte martxan zegoen Merkatu berria"

baina dena ezerezan geratu zen.

Bestalde, gaur egungo gazteriaren ohiturak Elizaren gustokoak ez direla? Ez dugu uste horregatik lokalak kendu behar zaienik. Elizak katekesitarako lokalak behar baditu, Udalak laga diezaizkiola lokalak beste tokiaren batean.

### Oloso Dorrea

**- Udalak eta Oloso Dorrea Sorrerakundeak sinatutako hitzarmenak amaiera eman dio Udaletxeko obrak direla eta Oloso Dorreak jasandako kalteei buruzko arazoari?**

- Udal artxibategia egiteko lurra zulatzen hasi aurretik ikerketa geoteknikoak egin behar ziren eta ez dira egin. Horren ondorioak begi bistan daude, dorrea lurrera etortzeko arriskua ere egon da. Gure iritziz teknikoek ez dute prebentziorik hartu eta, bestalde, zegoen arriskuari buruz Udalari aurrez abisatu genion eta hala ere obrarekin aurrera jarraitu du.

**- Hitzarmenarekin arazoa konponduta geratzen da?**

- Betetzen bada bai, gure artean sortu den iskanbila konpondu da.

**- Hitzarmenean jasotzen diren puntuen arabera, Oloso Fundazioari arazoia ematen zaio. Udalak gaizki jokatu al**

.....

## "Elizak katekesietarako lokalak nahi baditu, Udalak laga diezaizkiola"

du?

- Nere ustez arazo honetan politikoena izan da ardura nagusia. Aurretik abisatu genion Udalari beharrezko segurtasun neurriak hartu zitzaizkion, aseguru poliza bat egin zezan zerbait gertatuko balitz indennizazioak jasotzeko aukera egon zedin, Plenoetan birritan edo aipatu genuen gai hau eta aktetan jasota egongo da.

## Industrialdea

- **Industrialdearen gaiaren inguruan, HBk egin zuen proiektuarekiko asko aldatu al da gaur egungoa?**

- Ez dut Industrialdeari buruzko daturik. Badakit Udala UCEMekin negoziaketan izan dela Altos Hornoseko pabilioi zaharrak eskuratzeko asmoarekin. Akordio batetara ere heldu omen dira baina Alkateak eta Gobernu Batzordeak izan ezik, Udalean ordezkaturik gauden beste zinegotziek ez dakigu ezer gai horri buruz.

- **Hala ere zuen asmoa IMPRECI inguruan jartzearena zen.**

- Bai, Mekolalderaino zabaltzea zen gure ideia eta Industrialdean kokatzeko asmoa zuten ugazabekin akordio ekonomikoetara iritsiak ginen baina EAk gobernua utzi zuen eta EAJ proiektuarekin ados ez zegoenez, bertan behera geratu zen guztia. Hala ere, aldi berean, UCEMekin negoziaketetan ari ginen.

- **Udaletxeko obrei buruz zerbait esateko baduzue?**

- Guk beti onartu dugu Udaletxea berritzea, hasierako proiektua HBk bultzatu zuen eta neuk sinatu nuen proiektua. Bes-

te kontu bat da gaur egungo koiuntura ekonomikoak kontutan hartuta 600-700 milioi pzt.a tako gastu batean sartuko ginen ala ez. Gaur egun ez genuen Udaletxea berrizteko proiektua aurrera eramango.

- **Nola baloratzen du HBk Udaleko Gobernu Batzordeak EGINeko herriko berriemalari informaziorik ez pasa-**

tatik ez goaz inora. Aurreko legealdian HB agintera heldu zenean Udaletxean ez zen periodikorik erosten eta DEIA, EL DIARIO VASCO eta EGIN erosten hasi ginen. Gero, GAUR EXPRES plazaratu zuten eta DIARIO VASCOren ordezkari hartzea erabaki zuen Udalbatzak. Ondoren, DIARIO VASCO berriz ere hartzea pro-

genuen horrela jokatu eta guztiak hartzea erabaki genuen herrian iritzi eta ikuspegi ezberdinak direlako eta egokiena guztiei erantzuna ematea zela pentsatu genuelako. Hori izan da gure kriterioa eta orain hartu den erabakiarekin atzera egin dugu. Bergaran gure alderdiak pisu garrantzitsua du eta gure diruarekin erositako egunkariak direnez, guk ere gure esku-bideak baditugu. Udala zabala ez bada ez du herria ordezkatzeko.

- **Bukatzeko, Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruan zein da zuen proposamena?**


- HB autopistaren kontra dago, Deba Arroko herritarrek peaje bat ordaintzera behartzea ez dugu begi onez ikusten. Errepide berri bat egitearen eta autobien alde gauden baina peaje barik. Hemen azken 100 urteetan ez da errepide berririk egin, daudenak konpondu eta zabaldu egin dira.

## "HB Maltzaga-Urbina autobidearen alde dago baina peajea ordaindu barik"

**tzeko, periodikorik ez erosteko eta egunkariaren publizitateari ez jarritzeko hartu duen erabakia?**

- Astokeria bat iruditzen zait. Oso kriterio itxia erakutsi du erabaki hori hartzerakoan. Bide horre-

posatu zuen EAJk eta horrela egin genuen eta azkenik EGUNKARIA kale-ratu zenean hura ere erosten hasi ginen. DEIA eta EGUNKARIA Bergaran gutxien irakurtzen direnak izanik ez erosteko aukera geneukan baina ez



"Udala zabala ez bada, ez du herria ordezkatzeko"

# TEMPRA STADIO



**ERAKUSKETA:**  
Ibargarai 39  
BERGARA

**TAILERRAK:**  
Antigua Auzoa  
ANTZUOLA

# Autoberezi **FIAT**

ZERBITZU OFIZIALA

## MAXIM'S TABERNAREN OHARRA

INPRENTAKO AKATS BATENGATIK, GABONETAKO LOTERIAREN ZOKKETAKO PARTIZIPAZIOAK 25.290 ZENBAKIAREKIN JARRI DIRA SALGAI, BENETAKO ZENBAKIA 25.250 DELARIK. BERAZ, BALIORIK GABE GERATU DIREN **25.290** ZENBAKIAREN PARTIZIPAZIOAK **25.250** ZENBAKIARENGATIK ORDEZKATZEN DIRA. BARKATU ERAGOZPENAK.




Maxim's kafetegia

Simon Arrieta 5

☎ 76 20 61

# 1993

# III. BERGARA KIROL SARIAK



BENITO CANTERO

**UDAL KIROL ZERBITZUAK eta BERRIGARAK, aurreko bi urteetan bezala aurten ere, Bergaran gehien nabarmendu diren kirolariak saritu nahi dituzte "III. BERGARA KIROL SARIAK" aukeraketaren bitartez. Horretarako, aste honetan herriko kirol taldeak aurkeztuko dizkizuegu hurrengo orrialdeetan. Horrekin batera, txartelak banatuko ditugu, zuek irakurleok 1993an Bergarako kirol talderik onena eta goi mailako kirolaririk onena zeintzuk izan diren aukeratu ditzazuen. Nahi dituzuen beste txartel bete ditzakezue eta datorren asteartea, hilak 21, arratsaldeko ordu 2ak baino lehen BERRIGARARA edota UDAL KIROL ZERBITZUKO bulegora (Irizar Jauregian) eraman beharko dituzue. Jasotako txartelen artean, sari bikainak zozketatuko dira. Beraz, badakizue, zenbat eta botu gehiago bidali, aukera haundiagoa.**

**BERGARAKO  
IGERI  
ELKARTEA**

Jose Maria de Borja da Bergararen izena podiumaren goreneko mailara sarritan eramanean duen taldeko presidentea. 50 federatu ditu eta 1971.ean sortu zenetik Gipuzkoa eta Euskadi mailako txapelketa ugari irabazi ditu bai taldeka zein banaka. Espainiako Txapelketetan ere hainbat alditan ibiliak dira.

Aurten, Euskadiko Igerilari Onena aukeratzeko txapelketan Iñigo Gallastegik lehen postua lortu du Senior absolutoetan, Ion Jaurregik 2.a Junior mailan eta eta Juan de Borjak lehen postua kadetetan. Nora Olabide, Leire Zeziaga, Andoitz Gallastegi, Aritz Garzia eta toki faltagatik aipatzen ez ditugun beste asko urtean zehar bikain aritu dira.

Waterpolo taldea ere gogor ari da.

**BERGARAKO  
XAKE  
ELKARTEA**

1962. urtean sortu zen eta gaur egun 60 federatu fitxa ditu. Miguel Angel Muela da elkarteko presidentea. Iaz Euskadiko Xake Txapelketa antolatu zuten eta aurten, besteak beste, Xake Astea San Martin jaietan eta Bergara Hiria Xake Saria Pazkuetan.

# Herriko

**BETI-BUSTI**

Bergarako piraguismo taldeak 1985. urtetik dihardu lanean. Jose Ignacio Moreno da taldeko presidentea eta Iñaki Gallastegi idazkaria.

23 federatu ditu aurten eta inguruko urtegi eta erreketan ibiltzen dira. Iparraldeko Errobi ibaira, esate baterako, sarri egin dituzte irteerak, uda partean batez ere.

Datorren urteko udan Deba-Saturraran piragua trabesia antolatzeko asmoa dute Debako Arraun elkartearekin batera. Horrez gain, hastapen ikastaroak antolatuko dituzte Agorrosingo kanpoko igerilekuetan eta ur-biziko erreketan.

**KARATE  
ELKARTEA**

Garai hobekak ezagutu baditu ere, gogor ari dira herriko karatekak. Jose Luis Martinez da taldeko buru eta 50 federatu ditu gaur egun. 1978. urtea ezkerotik lanean dihardu baina 1986an elkartea eratu zen.

Hipolito Plaza eta Diego Valor izan dira taldeko karateka onenak. Plaza Espainiako txapelduordea izan zen 1987. urtean eta Diegok, berriz, postu bera lortu zuen 1990.ean.

Jose Luis Martinez 9. sailkatu da Euskadiko rankinean

**BADMINTON  
TALDEA**

1990. urtean sortutako kirol taldeko burua Victor Garcia da. Herrian ohiartzun haundiegirik ez du, alde batetik hasi berria delako eta, bestetik, gure artean kirol minoritarioa delako. 14 federatu fitxa ditu aurtengo denboraldian.

Pixkanaka-pixkanaka Gipuzkoa mailan antolatzen diren txapelketetan parte hartzen hasiak dira, bai taldeka zein banaka. Kiroldegian entrenatzen dute.

• **OINARRIAK** • **OINARRIAK** • **OINARRIAK** •

**1 HELBURUA**

Helburua, Bergarako kirol talde eta kirolari guztien 1993ko lana aitortzea da. Hortarako lau sail egin ditugu.

**2 SAILAK**

- A. Kirolaririk onena
- B. Kirol talderik onena
- D. Goi mailako kirolaririk onena.

E. Batzordearen sari berezia. Zuen botuek kirol talderik onena eta goi mailako kirolaririk onena aukeratzeko dituzte. Kirolaririk onena eta sari berezia nori eman bi batzordek erabakiko dute.

**3 BATZORDEAK**

Bi batzorde izango dira. Batek, herriko kirolaririk onena aukeratzeko du eta herriko

kazetari berriemate eta Udal Kirol Zerbitzuko ordezkari osatuko da. Besteak, herriko kirol munduan lan egiteagatik nabarmendu denari (direktibo, entrenadore...) sari berezia emango dio. Andoni Larrañagak (Kirol Batzordeko zinegotzia), klub bakoitzeko ordezkari batek, Josune Linazisorok (Kirol Zerbitzuko Zuzenadria) eta Iñaki Ugarteburuk (Kirol Zerbitzuko Teknikaria) osatuko dute.



## ARIZNOA GIMNASIA ERRITMIKOA

1979. urtea ezkerroztik lanean. Izaskun Agirregabiria dugu gaur egun elkarteko buru. 9 federatu ditu.

Aurtengo lorpenen artean, hauek azpimarra ditzakegu: Euskadiko Eskola arteko txapelketan taldekako alebin B mailan txapeldunak eta banakako benjamin mailan ere txapela eskuratu dute.

## POL-POL MENDIZALE TALDEA

Herriko kirol elkarterik zaharrenak 609 federatu fitxa ditu. laz ospatu zuen 50. urteurrena (1942.ean sortu zen).

5 sail ditu (Gazteak, Beteranoak, Gazte-  
txoak Eskalada eta Skia).

Ohizkoak dituzten irteerez gain, Euskadiko Haur Ibilaldi Neurtuaren Kontzentrazioa antolatu dute aurten Bergaran.

Ion Ander Gantxegi aukeratu dute aurten elkarteko presidente.

## BERGARA KIROL ELKARTEA

Pol-Polekin batera federatu fitxa gehien dituen elkarte.

Lau sailetan banatutako elkarte: Futbol saila (8 talde), Eskubaloia (5 talde), Saskibaloia (6 talde) eta pelota (2 talde). 1992-93 denboraldiko datuak dira horiek. 1952. urtean sortu zen eta gaur egun Iñigo Zaitegi da elkarteko burua.

Iazko denboraldian azken urteetako sailkapenik onetsuenak lortu zituzten elkarteko sail ezberdinetako talde gehienek. Hala ere Saskibaloia sailak iaz 6 talde izan bazituen ere, aurten bi bakarrik ditu. Etorriko dira garai hobeak. Ez da lanik egiten ez dutelako behinik-behin

## LOKATZA ZIKLISMO ESKOLA

Jesus Kortabarría "Kaxeta" da taldeko arduraduna eta Pello Garitano eta Jose Mari Gabilondo laguntzaileak. 5 taldetan banatutako 40 federatu fitxa izan ditu aurten. 1975. urtean sortu zen.

Iaz Euskal Bizikletako etapa baten ailegera eta irteera antolatu zuten eta horrez gain urtean zehar hainbat txirrindulari lasterketa antolatzen dituzte herrian.

Joseba Garitano, Beñat Aiastui, Ritzar de Goñi edota Iker Markiegik, besteak beste, postu onak lortu dituzte Gipuzkoako herrietan antolatutako lasterketan.

# Kirol

Euskadiko txapelketan bikain aritu ondoren astebukaera honetan Gijonen jokatuko den Espainiako Txapelketan parte hartzeko txartela lortu dute. Ilusio haundiz joan zaikigu Eva Arvalillo, Yolanda Herreros, Alicia De Cesar eta Ana Gallastegik entrenatzen dituzten neskatok.

## ZALEAK ATLETISMO TALDEA

San Martin eta San Silvestre heri krossak antolatzen ditu urtero 1986. urtean sortutako herriko atletismo taldeak. 28 federatu fitxa ditu aurten eta taldeko arduraduna Miguel Angel Muela da.

# Taldeak

## • OINARRIAK • OINARRIAK • OINARRIAK •

### 4 BOTOAK

Berrigarak aste honetan herriko kirol taldeak eta goi mailako kirolean dihardutenen zerrendak aurkeztuko ditu. Horrekin batera zuen aukeraketa jasotzeko txartelak banatuko ditu. Irakurle bakoitzak nahi beste boto bidali ahal izango ditu, beti ere, datorren asteartea, hilak 21, arratsaldeko ordu 2ak baino lehen. Txartelak Berrigarara

edota Udal Kirol Zerbitzuko bulegora (Irizar Jauregia) eraman beharko dituzue. Jasotzen diren botoen artean Piriniotara eskiatzera joateko bi pertsonarentzako astebukaera baterako bi bidaiak eta Kirol Zerbitzuko bi karnet zozketatuko dira.

### 5 SARIAK

• 50.000 pzta kirol materialean

kirolari onenari.  
• 50.000 pzta. kirol materialean kirol talde onenari.  
• Sari berezia goi mailako kirolari onenari.  
• Sari berezia kirol munduan urtetan egin duen lanagatik nabarmendu den direktibo edota entrenadoreari.  
Herriko kirol taldeen artean bi pertsonarentzako bidaiak zoragarria zozketatuko da abenduaren 29an Kultur Etxean.

**ski, mendi,  
txirrindularitza,  
gimnasia...  
materialak**



**Kiroletarako era guztietako materialak**

# **BOLINTXO**

*kirolak*

Ibargarai, 10 BERGARA  
☎ 76 38 32



**ehiza eta  
arrantzarako gaiak**

**txamarrak, txandalak,  
zapatilak...**



# Txiki txikitatik hezitzen

Guraso askok egun osoan zehar etxetik kanpo lan egin beharra du eta ondorioz 3 urtetik beherako haurrak ezin dituzte zaindu. Batzuk euren haurrak hartzaindegira bidaltzen dituzte eta beste batzuk, aldiz, San Martin eskolara. Baina aurten Mariaren Lagundikoeak bi urteko haurrekin gela bat ireki dute eta urtarriletik aurrera, Aranzadi ikastolak ere asmo bera erakutsi du.

*Bi urteko haurrentzako gelak herriko ikastetxeetan*

**O**rain arte Mariaren Lagundian eta Aranzadi ikastolan ez zegoen 3 urte bete arte umeak matrikulatzerik hartzaindegira joan edo etxean gelditu behar ziren. San Martin eskolan, aldiz, bi urteko haurrak 1987an hasi ziren onartzen.

Momentuan San Martinen, Zabalotegin eta Martokon 10 haur dituzte; bertako irakasle diren Mari Jose Garmendia, Lurdes Orbea eta Salus Aranburuk esan digutenez "bi urteko umeak ez ditugu besteen moduan hartzen irailean, horiek urrian, urtarrilean edo



Haurrek euskara txiki-txikitatik ikasi eta eguneroko bizitzan autonomia izatea da helburua.

**IRIMO**

**MEMESA**

**phantom**

**SKF**

ARRASATE ☎ 76 42 22 • ARETXABAETA

Aste Santu ostean sartze-ko aukera dute eta eskolarekiko sarrera pixkana-ka egiten dugu, oso gogorra ez izateko".

Haurrak aureskolako beste adin batzuetako umeekin nahasten dituzte "adin nabasketarekin, sartu berri diren bi urteko umeek, zabarragoek egiten dutena ikusten dute; ondorioz badakite eskolak nola funtzionatzen duen eta horrek integrazioa erraztu egiten du. Baina, noski, beren adinari dagokion afektibitate mantenduz" diote irakasleek.

Zabalotegin bi irakasle daude, Martokon bat eta San Martinen beste bat, eta eurek esan digutenez ongi ikusten dute bi urteko haurrak eskolara eramatea: "Hasierako helburua alde batetik sozializazio zen, umeak etxean oso pertsona gutxikin baititu barremanak eta beste umeekin kontaktuan jartzen direnean asko zabaltzen dira. Bestetik euskara lantzearena zen. Guregana etortzen diren ume gehienak erdaldundak dira eta bi urtetatik aurrera eurentzat arrotza den bizkuntza ikasteak emaitza onak eman ditu". Helburu nagusia haurrei afektibitatea eskaintzea da.

**"Niretzat txikiegiak dira"**

Mariaren Lagundian urritik aurrera onartzen dituzte bi urteko haurrak



Haurtzaindegian hiru hilabetetik 7 urtera bitarteko haurrak daude.

eta orain 15 ume dituzte. Nerea Atorrasagasti, Mariaren Lagundiko eskolaurreko koordinatzaileak adierazi digunez, bi urteko umeak onartzeko bi arrazoi nagusi daude: "batetik gurasoek eskatzen ziguten, euskara ikaste dezaten eta bestetik denbora libre izateko. Bigarren arrazoi nagusia, matrikulen jeitsiera izan da eta horrekin uste dugu gehituko direla".

Haurrak gela batean daude eta eurekin 9'30etatik 12'30ak arte irakasle bat dute. Dena den Atorrasagastik, pertsonalki, ez lituzke bere semeak bi urterekin eskolara eramango. "Umeak asko gogoz kontra etortzen dira,

nire ustez bi urterekin haurrak ondoen amarekin daude. Horrek ez du esan nahi beste haur batzuk gustora ez direnik etortzen, sozializazio eta euskara aldetik aurreapena izan daiteke eta. Ni, duela 15 urte, bi urtetako haurrei, goizez eta arratsaldez klaseak ematen aritu nintzen eta bai niretzat eta bai eurentzat oso esperientzia gogorra izan zen" diosku Atorrasagastik.

**"Umezaintza eta gure zerbitzua desberdinak dira"**

Aranzadi ikastolak oraindik ez du bi urteko umeentzako eskolarik es-

kaintzen. Baina hurrengo urtariletik aurrera zerbitzua martxan jartzekotan dira.

Horri buruz hitz egiteko Andoni Etxeberria Zuzendari pedagogikoarengana jo dugu. "Matrikulazio garaian guraso askok bi urteko haurrak onartzen ote genituen galdetu ziguten. Hasiera batean ez genuen planteatu zerbitzu hori ematea, baina harrezkero zerbitzua ez ematearren bajak izan ditugu eta horren aurrean gauzak planteatzen hasi gara. Gainera, datorren urterako haur gutxi daude matrikulatzeko garaian eta hori kontutan hartu dugu" dio Etxeberriak.

**ONENA**

**TINDATEGIA**

Barrenkale 29, BERGARA

**ARRASATEARRA**

Gure berezitasuna bazkariak.  
Eguneko menua daukagu.

**Taberna**

Zubiaurre 22,

Tfnoa: 76 20 19

BERGARA

Oraindik Aranzadi ikastolan ez da zerbitzua mar-txan eta Etxeberriak zerbitzuari abaintaila hauek ikusten dizkio: *"bi urteko haur batek dependentzia handia du eta oinarrizko beharrak betetzeko laguntza behar du. Autonomia eta afektibitate beharra dute. SozIALIZAZIOARI DAGOKIONEZ, lehen pausuak ere adin hone-tan ematen dira eta prebentzio mailan ere eskol-lak bere papera izan de-zake".*

Aranzadi Ikastolak zerbitzu berriari ekiteko, dagoeneko, 15 haur ditu eta gurasoei aurkeztuko dien planean eskolaurre-koen ordutegia izango dute, goizez 9'30etatik 12'30etara eta arratsaldez 3retatik 5etara bitartean.

●

**Haurrak hasiera batean pixkanaka joan behar dute ohitzen. Horregatik ordutegi flesiblea dute**

●

Haurtxoa haurtzainde-gian hiru hilabetetik 7 ur-tera bitarteko 32 haur daude. 5 langile ari dira lanean eta bertan hurrek gosaldu, bazkaldu, mi-riendatu, jolastu, lo eta la-guntza espezializatua du-te goizeko 7etatik arratsaldeko 7ak arte. Belen Muniategik, bertako lan-gileak, adierazi digunez *"haurrak hasiera batean pixkanaka joan behar dute ohitzen. Batzuri ge-biago kostatzen zaie mol-datzea, baina azkenean ohitzen dira".*

Haurtxoak 19 urte da-ramatza funtzionamendu-an, nahiz eta haseran Ume Alai izena izan, due-la 7 urtetatik hona Haur-txoa izena du. Haurtzain-degia adinaren arabera atal ezberdinetan dago

banatua. Horrezaz gain, Haurtxoan Aranzadi ikas-tolan dabiltzan haurrak ere badituzte, hauek ber-tan bazkaltzen dute eta eskolara ere Haurtxoako langileek eramaten dituz-te *"haur hauek eskolara 9etan sartzen dira, baina euren gurasoak lanera goizeko 7etarako joan be-har dute eta eskolara joan arte gurekin izaten dira".*

Eskolek jarri dituzten zerbitzu berriek kaltea ekarriko ote dion haur-tzaindegia, galdetu dio-gu Muniategiri. Bere iri-tziz, *"zerbitzu ezberdi-nak dira, eskoletan ba-karrik 3 ordu egoten dira, baina egun osoan zehar zaintzen ditugu eta ez dut uste kalterik ekarriko digunik".*

## Mertxe Castillejo

### 2 urteko semea Mariaren Lagundian

Mertxe Castillejok bere bi urteko semea urritik au-rrera, goizero, Mariaren La-gundira eramaten du. Era-baki horren arrazoia hu-rrengokoa da: *"semea etxe-an aspertu egiten zen eta momentu bat heldu zen denbora osoan telebista eta bideoaren aurrean ze-goena, eta horrela ezin zu-*

*en jarraitu. Hamaikak arte edo jolasten pasatzen zuen, baina gero aspertu egiten zen eta nik ere lanak egiteko ditut eta ezin nuen goizero bera-ekin kalera irten".* Castille-joren semeak bi hilabete da-ramatza eskolara joaten eta epe horretan izan duen es-perientziari buruz galdetu di-ogu: *"esperientzia ona da. Nik*



*orain gauzak egiteko denbo-ra gehiago daukat eta semea ere oso pozik etortzen da etxera".*

Castillejok semea haur-tzaindegira eramateko au-kerera ere izan du eta bertara eraman beharrean Maria-ren Lagundira bidali du. *"Ni etxean nagoenez ez dit ho-rrenbeste denbora kentzen. Gainera haurtzainde-gia desberdin ikusten dut. Ikastolan gauzak ikasten dituzte. Esate baterako nire semeari asko kostatzen zitzaion hitz egitea, baina orain hobeto hitz egiten du. Horrezaz gain, irakurtzeko, jolasteko etb. etarako zale-tasun gehiago hartu du"* adierazi digu Castillejok.

# SANTOS IRRATI-TB

# Zuek

ELEKTRO TRESNAK • TB • BIDEOA • BIDEO KAMARAK •  
MUSIKA TRESNAK • ARGIZTAPENA •

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

**Sukalde altzarien erakusketa**

**GABONETAN, OFERTA BIKAINAK: PEZIO INTERSGARRIAK**

## EGUZBITZA ERRETEGIA

Urtarrilaren 4an  
arratsaldeko 8etan  
sagardotegia  
zabaltzen dugu.

- ✓ Bakailau tortila
- ✓ Saiheskia
- ✓ Intxaurrak eta gazta
- ✓ Sagardoa nahi beste

Prezioa: 2.000 pta.

Jaiegunetan enkarguak  
hartzen dira.



## ZUBIETA elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
  - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48

## IRRINTZI


**Kafetegia**  
Kafea da gure  
bereztasuna  
☎ 76 20 50

## Gabonetako kontzertura joateko asmorik?



**Mariano Begiristain**  
62 urte, jubilatua

Aurreko urteetan ez dut joateko  
aukerarik izan kanpoan izan  
naizelako, baina aurten emaztea  
eta biok joango gara.



**Maite Zumarraga**  
12 urte, ikaslea

Ez dut uste joango naizenik.  
Gustatzen zait, eta lagunak ditut  
Musika Eskolan baina...



**Prese Aranburu**  
77 urte, etxeandrea

Bai, bai, beti joaten naiz, eta  
aurten ere joango naiz alabak  
Orfeoian kantatzen du eta. Asko  
gustatzen zait.



**Karlos Larrañaga**  
26 urte, medikua

Kanpoan izango naiz eta ezin  
izango naiz joan. Pena bat da  
baina aurten ere ikusi barik  
geratu beharko naiz.


# Sugoi

## Jai zoriontsuak!!

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Zure erosketarekin HI-FI kate baten zozketarako  
txartel bat ematen dizugu.

Irizar pasealekua, 2 behea ☎ 76 59 54 BERGARA



## Hamaseiko grebaz

Ale hau kaleratu orduko abenduaren hamaseirako deituta zegoen sektore publiko osorako greba burututa egongo da.

Soldaten izozketa dela eta ez dela, aspalditxotik ari naiz entzuten zenbaiten ahotan lan fijoak izanik ez garela gu kexatzeko arrazoi gehien daukagunok, azken finean krisia hain sakona izanik denok jarri beharko genukeela zerbait gure aldetik, beste sektore batzuetan ere horrelako neurriak hartu behar izan dituztela, etab.

Honetaz luze eztabaida daiteke, nahiz eta argumentu hauen ahultasunaren adierazgarri hor ditugun presupestoak, bertan ikus baitaiteke zeintzuk diren konjelatu diren partidak eta zeintzuk kongelatu barik dexente haunditu direnak; baina ni ez naiz horretan sartuko, zeren hori benetako auzia desbideratzea litzateke, eta baten bat pitokeria horiekin urak bere errotara eraman nahian dabilela sumatzen dut.

Iskanbila guzti honen erdi-erdian dagoena zera da: sindikatuek eta patronalak negoziatuko lan hitzarmen batzuk daudela (zeudela esan behar?) indarrean eta akordio horiek alde batek, bere kabuz eta dekretuz, indar barik utzi nahi dituela. Eta gure lan baldintzak negoziatzeko eskubide hori da (zen?) langileok geure burua defendatzeko dugun (genuen?) tresna bakarra. Zoritxarrez, inposizio honek ugazabaren nagusikerien menpe uzten gaitu, eta beldur naiz honen atzetik ez ote diren beste hainbat etorriko.

**Iñigo Barruso**



## Unibertsitatea

Azken egunotan E.H.U.ko iskanbilak direla eta, hainbat gauza iradoki nahi nituzke medioek ez bait dute gertakarien nondik norakoa osotasunean azaldu.

Badakizue honez gero, Leioako kanpusean kaleratutako bost irakasle daudela eta hauek beraien ordezkoren klaseetara sartu izan direla, erretoradutzak zinpeko goardia batzuk jarriz hauen sarrera eragozteko. Haatik, zinpeko goardia hauek ez dute irakasleen sarrera debekatu, sartu ondoren era desegokian atera baizik. Urriaren 27an klasera joan nahi eta ezin sartu atea itxita aurkitu bait genuen eta atera nahi zutenak ezin atera. Medioetan entzun izan dut kristal apurketak egon zirela, baina kristala apurtu zen klasera sartu nahi eta zinpeko goardiekin izandako bultzaden ondorioz. Ertzantzak, klasea ematea eskatzen genuen fakultateko ikasleak gaizkile arrunt bezala tratatu gintuen.

Medioetan kanpusera berrehun pertsona sartu zirela zabaldu zen, kamorra bila edo zetozenak. Kamufletuta etorriko ziren, geuk ez bait ditugu ikusi eta Ertzantzaren presentzia justifikatzeko izan ez den pentsatu izan dut. Guzti hau dela eta Fakultatea zazpi egunez itxi zen Erretoradutzaren aginduz. Ez naiz irakasleei edo Erretoradutzari errua botatzen hasiko. Baina beti uste izan dut pertsona bat kaleratuta dagoenean eta berea zen lan horretan iskanbilak sortzen baditu neurriak hartu beharko liriatekeela. Erretoradutzak neurriak ez hartzeari susmo txarra hartzen diot. Ez da izango irakasleek nolabaiteko arrazoia badutela eta Erretoradutzak neurri hoiak hartu ez eta irakasleen kontra jarri nahi izan gaituela Fakultatea itxiz? Ez dakit.

**Monika Belastegi**

# EDEL

## TAPIZDENDA

Etzerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14, BERGARA**

# IGARZA

## MERZERIA

## LENZERIA

**D. IRALA 5**  
**Tlfnoa: 76 24 88 BERGARA**



## DEBA

# GARAIA

### INMUEBLE ETA FINANZTA

### AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80  
☎ 76 06 37

# ITXASMENDI

## Taberna

Barrenkale 36  
Tfnoa: 76 50 64  
BERGARA

# SUBIJAI

## Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**HARATEGIA**

**ANTIA**

**URDAITEGIA**

Txahal, idi, txerri, bildots,  
untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

**ARREGI**

**Eraikuntza  
materialeak**

Biltegia Teilerian, Tfnoa: 76 27 93  
Labegaraita Auzoa

*Pepelu*

**Ileapaindegia**

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

**MAKAILO**

Makailau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargarai 15



*Ziripot*

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



**Ereserkiaren aurkezpena Anoetan**

Udal Musika Banda, Orfeoia, Aritzeta abesbatza, Orfeoi Gaztea eta Musika Eskolako Tipleen abesbatzak, Gipuzkoako **Futbol Federazioaren 75. urteurrena** ospatzeko, asteazkenean Anoetan Bolivia eta Euskadiko futbol selekzioek jokatu duten partidu atarian, Alfredo Glez. Chirlaque eta Valen Moñuxek konposatu duten ereserkia abestuko dute. Argazkian, orain gutxi Maria Cristina Hotelean egindako harreran, ereserkia aurkeztu zenean. Bergararren espedizioa Xamatx dantzataldearekin osatuko da asteazkenean. Txartelak (autobusa barne) Deportibo tabernan eskura daitezke.



**Berrigararen bisitari**

Asteartean **Balzers-Elay** lantegiko ordezkariak bisitari izan genituen. Enpresa hau Antzuolako Elay eta Liechtensteingo Printzipatuko Balzers enpresen batuketa da. Hona etorri eta **BERRIGARA** bisitatzeko tarte bat ere izan zuten hango ordezkariak. Ramon Mendibil Balzers-Elayko zuzendari gerenteak, Xabier Etxaniz kalitate zuzendariak eta Alberto Biana merkatal zuzendariak lagunduta, Herbert Mathies kalitate zuzendaria eta Rudolf Lanzenberger kanpo asistentziako teknikoak Berrigararen prozesuaren berri jaso zuten. Berrigararen kalitate kontrola gaituzte ote?

**Amets**



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50  
**AMETS TAILERRAK**  
Berezano auzoa OÑATI





□ **Urrezko eztaiak**

Igandean, **Mikaela Oianguren** eta **Juane Larrañaga** angiozartarrek beren urrezko eztaiak ospatu zituzten (1943ko irailaren 25ean ezkondu ziren Angiozarren bertan). Lehenbizi, San Migel elizan meza entzun eta, ondoren, bazkaltzeko, Taberna Zaharra jatetxean bildu ziren familiartekoeekin batera. Han izan ziren, besteak beste, beren 4 alabak eta 9 bilobak. Guztiek egun ahaztezina igaro zuten elkarrekin eta Mikaela eta Juanek gertukoek zorionak eta besarkadak jaso zituzten. Zorionak biei eta segi horrela!!



□ **Daniarrekin elkartrukea**

Elgoibarreko Makina Erramienta Institutuan ikasten ari diren **Igor Legazpia** eta **Igor Zabala** bergarar gazteak Dinamarkako **Aalborg** hirian (argazkia han ateratako da) izan dira hamabost egunez, Europako Ekonomi Elkarteko PETRA elkartruke proiektuari esker. Elkartruke horren bisita jaso dute dagoeneko, joan den asteko zubia aprobetxatuz, hemen izan bait ziren daniarrak. Horrela bai ikasi!!


**Zertan  
dibardute  
ba?**

**LUIS URIARTE**



Luis Uriarte "Atano", Bergara preferente taldeko futbol taldeko 24 urteko atezainak larunbatean Antena 3eko "El juego de la oca" saioan hartu zuen parte, 100.000 pta.ko saria eskuratuz.

**XABIER ZANGITU**



Hirugarren mailako lider dugun Durango futbol taldean jokatzeko ari zen 21 urteko gazteak, ezin izango du datozen hilabetetan jokatu lesio bategatik. Durangora joan aurretik Bergara K.E.ko kategoria guztietan jokatu zuen.



**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

# Umore giroan

## "Loriak" botatzen

Urlixa oso lora botatzaillia zan. Egun baten esatetsa neska bati:

- Agur, Maitxu, guapisima.

Neskiak, bere aldetik:

- Nik, naiz eta pena aundixakin, ezin ori zuregatxik esan...

Orduan Urlixak:

- Ori ezta problemia, Maitxu. Nik lez, esaizu guzur bat eta kitxo!

## "Trapu" peskan

Plaentxiako "Trapu" Santa Age-dara eruan zeben. Denbora pasa alde, urten zeban "etxe aunditxik" eskalluak peskatzeko asmotan. Ba daroiaz berakin kapazo eta botillak be. An ziar-  
duan peskan eta alako batian etorri jakoz guardia zibillak.

- Qué hace Vd. aquí?

- Peskan, jaunak.

- ¿No sabe que está prohibido? Dónde vive Vd?

- Or, etxe aundixan.

- Vamos allí mismo a hacer diligencias!

Eta eruan zeben "Trapu" guardia zibilen erdixan. Etrxe aundirA eltzean, an zeguan medikuari esatetsa:

- Direttore jauna, emen dakartuz-daz beste bi.

*Pedro Zelaia*

# ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Aurtengo maiatzaren 28an Jubilatuetako bola-toki berria inauguratu zen. Gaur egun, auzoetan izan ezik, dagoen bola-toki bakarra da. Argazkian, inaugurazio ekitaldiko irudi bat: Xabier Zubizarreta apaiza bola-tokia bedeinkatzen.

## Bolatokiaren inaugurazioa Maduran

Herri-kirolek gero eta zaletu gehiago dituzte gure herrian. Horren adibiderik asko badugu eta oraingoan, Madurako jendearen aldetik datorkigu berri ona: bolatoki eder bat eraikitzea erabaki dute udal-igerilekuetako tabernaren ondoan.

Bolatokiaren inaugurazio ofiziala datorren larunbatean, hilak 8, egingo da eta horretarako, bolariak

txapelketa bikain bat antolatu dute. Nahi duten bolajoku-zale guztiek har dezakete parte.

**1973.eko abenduaa.  
La Voz de España. Bikuña.**

**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak  
hemerotekatik bildutako notiziak**

# TABERNA ZAHARRA

## Jatetxea

### Bazkariak eta afariak

Tfnoa 76 21 21  
ANGIOZAR

# FS

oto sistema

APPÉNI<sup>®</sup>

## ARGAZKIAK ORDUBETEAN

✓ Diapositiba errebelatzeak.

✓ Karneterako argazkiak momentuan.

✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.

✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

## ileapaindegia eder gela

## disdira

Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

# EGUREN GESTORIA

**Maria Pilar Eguren Diez**  
Kolegiatutako administrazio gestorea  
Simon Arrieta enparantza 3, behea.  
☎ 76 21 65 / 76 24 45




# Zumelaga

## JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21



# ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



## ***GALDE DEBALDE***

**MARIAN LIZARRALDE**

Mizpirualde egoitzako bizilagunik zaharrenaren izena, adina eta bere garaian izan zuen lanbidea galdetzen genuen azken **Galde Debaldean**. Erantzun zuzena askok jarri duzue, baina bati tokatu behar eta **Marian Lizarralde** izan du zortetik haundiena. Berarentzat **ZUMELAGA JATETXEAK** emandako saria. Zorionak berari.

Baina zein da erantzun zuzena? Ba, noski, Mizpirualden bizi den pertsonarik zaharrena Jose Telleriarte da. 104 bete zituen pasa den irailan eta taxista izan zen. Saririk jaso ez duzuenok ez etsi, segi jokatzeko eta ea hurrengoan suerte gehiago duzuen.

# HERRAN ETXEA

**Sukaldeko altzariak**

Matxiategi, 4. 76 37 53

- Aurrera ezazu berokuntzan % 55era arte
- Aprobetxa itzazu gaueko tarifaren abantailak
- BERO-AKUMULADOREAK

**FAGOR**



## JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



MARIAN LIZARRALDEK jaso du aste honetan ZUMELAGA JATETXEAK emandako saria.



**ARGAZKI**

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Bergara pintoreen herria dela gutxik ukatuko du dagoenez: Arrieta, Okina, Juaristi, Agirre, Lazkano,... bukatu ezinezko zerrenda egin daiteke artearen arlo honetara dedikatzen diren artistekin. Gure pintoreek bakarka zein taldeka lortutako arrakastak begi bistakoak dira guztientzat, gogoratu besterik ez iaz Italiako Ortonovon egindako taldeko erakusketa.

Baina ez dira bertakoak kanpora joaten direnak bakarrik, noiz behinka kanpotarrak ere etortzen baitira bertan erakusketaren bat egitera.

**Nola zuen izena orain dela bi aste Errotalde Kultur Etxean bere margoak erakutsi dituen pintore japoniarrak?**



izena

abizena

telefonoa

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

## Ping-Pong txapelketa

Larunbatean eta igandean, abenduak 18 eta 19, Ping-Pong txapelketa jokatu da Pizinetako tabernan arratsaldeko 4retan. Lehen laurentzat, 12.000 pta. 8.000, 4.000 pta. eta 2.000 pta. ko sariak izango dira.

## Txirrindularitza ikastaroa

Deba Garaiko udal kirol zerbitzuek txirrindularitza zuzendari ikastaroa antolatu dute eskola graduatua duten 18 urtetik gorakoentzat urtarrilaren 15etik otsailaren 12ra arte Bergarako Lanbide Hezkuntza Eskolan. Izena emateko epea urtarrilaren 11n amaituko da. Plaza mugatuak dira.

# Beti-Busti piraguismo taldeak bere aurkezpena egin zuen

Beti-Busti piraguismo taldeak 1994ko denboraldirako iharduerak aurkeztu zituen ostiralean prentsaurrean. Bertan izan ziren, besteak beste, Francisco Gomez Gipuzkoako federazioaren presidentea, Oscar Chanca selekzionatzaile ohia eta aholkulari teknikoa edota Iñaki Gallastegi Beti-Bustiko idazkaria. Gallastegik adierazi zuenez, "Eskola Kirola indartzea, ur bizieta irteerak egitea eta trabesietan parte hartzea izango dira taldearen oinarriak". Era berean, uztail aldera, Debako Arraun taldearekin batera, Deba eta Saturraran artean trabesia bat antolatzeke asmoa azaldu zuen.

Beti-busti taldea 1985. urtean sortu zen eta gaur egun 50 bazkide inguru



Oscar Chanca, Iñaki Gallastegi eta Francisco Gomez prentsaurrean.

ditu. Azken hilabeteetan, jende nagusiaz gain, gaztetxoek ere piraguismoan aritzeko aukera izan dute, Eskola Kirolaren barruan Beti-Bustik igerilekuetan antolatutako ikastaroei esker. Francisco Gomezek esan zuen piraguismo talde batek aurrera egiteko ez dela behar beharrezkoa kostan edota ur

bizien inguruan kokatuta egotea, "azken batean probintziako ur bizieta talde gehienek Frantzia edota Kataluinara joan behar izaten bait dute". Beti-Busti taldean parte hartzeke interesa duten guztiak Matxiategiko Kayak tabernara (760329 telefono zenbakia) jo dezakete.

## Espainiako txapelketara

Asteazkenean abiatu ziren Gijon aldera astebukaera honetan Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan parte hartuko duten Ariznoa taldeko kideak. Eva Revallillo eta Alicia De Cesar entrenatzaileak eta taldeko lainbat ordezkari eta gurasoren laguntza izango dutela, Amaia Arrieta, Ana Sebal, Saioa Garitano, Itziar Lopez, Nerea Mendizabal, Lorea Askasibar, Ezosi Artetxeberria eta Amaia Ortiz de Urbinak taldeko junior txapelketan eren maila erakutsi beharko dute. Taldeko ordezkarien esanetan, "Gijonera joatearekin oso pozik gaude. Gimnastentzat oso esperientzia ona da".



## Kiroldegiko Taberna



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41



Makilatu nahi eta ez badakizu nola, edo zure estiloa aldatu nahian bazabiltza, **LILURA EDERTZE INSTITUTUAN** zeure burua makilatzeke ikastaroak eskeintzen dizkizugu, profesional batek zuzenduta.

Informa zaitetz 76 31 71 telefono zenbakian edota bisita gaitzazu Bergarako Bidekurutzeta kaleko 7. zenbakian, lehen pisuan. Ikastaroaren prezioa: 5.000 pta. Plaza mugatuak.



**San Martzial. Launtzazko taldea, 1926**

**E** stanpatxo dotorea dakargu oraingoan. Aspaldiko argazkia, aurrekoetan oraintsukoagoak agertu ditugu eta. Nagusi eta txiki, denak patxada ederrean. Hara nortzuk diren ezkerretik eskumara:

**Aurrean:** Maria Uribesalgo, Larrañaga, Bixente Ena, Mariasun Ena (umea), Pedro Agirrezabal eta Mari Kruz Ena (altzoan dagoen umea).

**Atzean:** Inazio Pildain (mutikoa), Norberta Uribesalgo, Natalia Urkiola, Agapita Agirrezabal, Maria Larrañaga, Juanita Larrañaga eta Jose Larrañaga "Alaia" (zutik dagoena).

**Estepan Plazaola**  
**Argazkia: Jesus Urkiola**

**GABON HAUTAN ERE...**



*Leure  
 Opari Demda  
 Bergara*

**Barrenkale, 27**

**ETXEBIZITZA**

**Taberna** salgai Uberan. Prezio interesgarria. ☎ 76 25 99.

**Etxebizitza salgai** Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

**Pisua hartuko nuke alokairuan.** ☎ 79 83 50.

**Garajea salgai** Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

**Pisua salgai** San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

**Garajea hartuko nuke alokairuan** Tokiederren. ☎ 76 52 45.

**Pisu amueblatua salgai** Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

**Etxea salgai** Katabian. ☎ 76 56 20 (gauzez).

**Garajea salgai** Iparragiren. ☎ 76 28 52.

**Pisua alokatzen da.** Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

**Bergaran pisua** betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

**Pisua alokatzen da.** ☎ 76 18 82.

**Garajea salgai** Sta. Marian. ☎ 76 43 89.

**Garajea salgai** Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

**Etxea salgai** Masterrekan. ☎ 76 48 30.

**Pisua alokatzen da.** ☎ 76 46 15.

**Etxebizitza salgai** Martokon. Merkea eta berriztuta. ☎ 76 00 93.

**Garajea salgai** Bolun. 1.000.000. ☎ 76 23 37.

**Etxebizitza** (Martoko 4an) eta **garajea** (Ibargarain) salgai. ☎ 76 00 93.

**Etxebizitza salgai** Antzuolako Ibarra kalean. 80 m<sup>2</sup>. ☎ 76 57 38.

**DENETARIK**

**Citroen Visa** (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 764071.

**Ume kotxe** bat salgai. ☎ 76 02 00.

**Ford Taunus** 2.000 CL salgai. Egoera onean. ☎ 76 15 74.

**Belarritako** bat galdu dut. Harri berde eta zuriekin. ☎ 76 43 37.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Gasezko estufak** erosiko nituzke. ☎ 74 08 95.

**Ford Fiesta Sporta** salgai. SS-X. Prezio onean. ☎ 79 76 89 (Ion).

**Ebakigailu elektrikoa,** pisu elektrikoa eta erakustegi frigorifikoa salgai. ☎ 76 59 28/23 65.

**Seat 1.500 SS-94465** kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 42 81.

**Ortuan** lan egiteko makina erosiko nuke. ☎ 76 55 67.

**R-18 diesel** (familiarra) eta **Ford Fiesta** salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

**Opel Corsa Joy** salgai. Egoera eta prezio onean. ☎ 79 54 46.

**Renault 21 TXE** bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

**Peltz eskalada** ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

**LANA**

**Gutxitu sikiko, elbarri** edota **zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

**OHO eta ingeles** (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Pertsona zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

**OHO, UBI, BBB eta LH** klaseak ematen ditut. ☎ 76 19 34 (Jon).

**Neska** gazte batek haurrak zaindu, etxeak garbitu edota gaisoak zainduko nituzke. ☎ 76 45 53

**Ingeleseko klaseak** ematen dira. ☎ 76 31 36.

**Emakume** bat behar da goizetan etxeko Inak egiteko. ☎ 76 57 05.

**Dibujo teknikoko** klaseak ematen ditut. ☎ 765516 (Jabier).

**Ingeles Filolojian** lizentziatuta, klaseak emango nituzke. ☎ 76 17 36.


**Latin, Euskara eta Franses klaseak.** ☎ 76 02 99.

**Hildakoak**

*Jesus Eguren Agirrezabal*  
abenduak 12, 58 urte

**Jaiotakoak**

*Iosu Imaz Arzelus*  
abenduak 4  
*Maitalen Zangitu Orbea*  
abenduak 4  
*Isou Gómez Gutiérrez*  
abenduak 4  
*Ander Etxeberriarteun López*  
abenduak 6



**BERGARA BOLTSAK**

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, naruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialia
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

**ARRASATE ERDIALDEAN**, Deba Garaiko  
merkatal gunerik haundiena aurkituko duzu.  
Hemen zure erosketek izen propioa izango dute.

# ibai-arte



ARRASATE ERDIALDEKO MERKATAL  
ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

**paseatuz erostea arte bihurtu dugu**

**BISITA GAITZAZU!!**